

Herriaren partaidetza kultura-ondare komunitarioan: Antzuolako Mairuaren Alardearen adibidea

(Local participation in community cultural heritage: the example of the Moor's Parade of Antzuola)

BULLEN, Margaret L.

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fak. Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila. Tolosa Hiribidea, 70. 20018 Donostia
maggie.bullen@ehu.es

KEREXETA ERRO, Xabier

Kalegoi. Karrika nagusia, 23b. 20304 Irun
kalegoi@gmail.com

Proiektu honek, hain zuzen, ematen digu zer hausnartu kongresu honek plantatzen duen dinamizari buruz: hau da, tokiko garapenaren eragileen, memoria, tradizioa eta kultur ondarearen profesionalen eta herritarren arteko harremanak jartzen dira aztergai. Bakoitzak bere interesak edo bere memoriak sortzen duen interpretazioa duenez, nola kudeatzen da denon ondasuna, batez ere immateriala denean eta jendearen parte-hartzea behar-beharrezkoa denean? Horregatik, Alardeari dagokionez, funtsezkoa iruditzen zaigu aktore sozial ezberdinen interpretazioa: jokoan dagoelako herriak bere burua nola antzeztu nahi duen.

Giltza-Hitzak: Memoria. Tradizioa. Kultur ondarea. Aldaketa. Berrikuntza. Alardea.

Este proyecto nos propone un tema para la reflexión sobre la dinámica que plantea este congreso; dado que estudia las relaciones entre los promotores del desarrollo local, los responsables del patrimonio cultural y los ciudadanos en lo referente a la memoria y a la tradición. Habida cuenta de que cada cual interpreta la realidad a partir de sus vivencias e intereses, ¿cómo se gestiona el acervo comunitario, especialmente el inmaterial, que requiere de la participación de todos los ciudadanos? En lo que al Arde respecta, consideramos fundamental valorar la interpretación de los distintos actores sociales, porque es la imagen que el municipio desea transmitir lo que está en juego.

Palabras Clave: Memoria. Tradición. Acervo cultural. Cambio. Innovación. Alarde.

Ce projet nous propose un thème qui nous amène à réfléchir sur la dynamique que pose ce congrès car il étudie les relations entre les promoteurs du développement local, les responsables du patrimoine culturel et les citoyens quant à la mémoire et à la tradition. Si l'on part du principe que chacun interprète la réalité à partir de son vécu et de ses intérêts : comment gère-t-on le patrimoine communautaire, en particulier, l'immatériel, qui nécessite la participation de tous les citoyens ? En ce qui concerne l'Arde, nous considérons comme fondamental de prendre en considération l'interprétation des différents acteurs sociaux puisque c'est l'image que la municipalité souhaite transmettre qui est en jeu.

Mots Clés: Mémoire. Tradition. Patrimoine culturel. Changement. Innovation. Alarde.

Komunikazio honetan aztertuko dugu Antzuolan 2006 eta 2007 artean garatu zen proiektu bat, herri horren alardea berritzeko asmoz. Izan ere, proiektu hau Antzuolako Udalak eta Mairuaren Alardearen Elkarteak Eusko Ikaskuntzari enkargatu zion, alardearen etorkizunaz kezkatuta zeudela azalduz. Alde batetik, azken urteotan oso parte-hartze gutxi izan omen zuen Alardeak; bestetik, Mairua antzetzeko moduari buruzko kritika batzuk jaso zituzten. Arduradunek, kritikak entzunda eta belaunaldien arteko errelebo eza ikusita, Euskal Herriko alardeen historia eta Antzuolako alardearen tradizioa ezagutarazi nahi zuten, Alardea sustatu eta bultzatzeko xedez.

Hala ere, proiektuaren garapena aurrera joan ahala lehenengo helburua aldatu egin zen: bultzatzea baino, gaur egungo errealitateari egokitzea bilakatu zen proiektuaren xedea. Asmo horretan, Antzuolako alardearen iragana, oraina eta geroa aztertuko zuen lan soziokultural bat gauzatzea erabaki zen eta azterketa Antzuolako herriri zuzendu zitzaion. Herrian alardeaz zeuden balorazioak aztertu ziren, herritarren artean alardea bera sustatzu partaidetza bultzatzearen. Azterketa, bada, Antzuolako Udalak eta Mairuaren Alardearen Elkarteak helburu horretan estrategiak antolatzeo baliabidea ez ezik, kitzikagarri izan zen herritarrek jaiaren eta honi darion kultura ondasunaren ikerketan eta zaintzan esku har zezaten¹.

Horretarako, galdera hauek funtsezkoak ziren: Antzuolako alardeak herriaren nortasunaren adibide eta emaile gisa ematen zaion garrantziaz eta jaietan jokatzeko egitekoaz galdetu genuen; Alardea jendartean, gazte jendean bereziki, nola eta noraino dagoen txertatua miatu zen; partaidetza handiagoa lortzeko egin litezkeen aldaketan edota berrikuntzen aukerak jorratu ziren. Aukera horiek, hain zuzen, ikerlanen ondorioak dira²; beste kontu bat da nola aplikatu zituzten aldaketak 2009ko alardean.

Proiektu honetan, hain zuzen, ematen zaigu zertaz hausnartu kongresu honek plantatzen duen dinamikari buruz: hau da, tokiko garapenaren eragileen, memoria, tradizioa eta kultur ondarearen profesionalen eta herritarren arteko harremanak jartzen dira aztergai. Bakoitzak bere interesak edo bere memoriak sortzen duen interpretazioa daukanez, nola kudeatzen da denen ondasuna, batez ere immateriala denean eta jendearen parte-hartzea behar-beharrezkoa denean? Horregatik, Alardeari dagokionez, funtsezkoa iruditzen zaigu aktore sozial ezberdinen interpretazioa: joan dagoelako herriak bere burua nola antzetzu nahi duen.

1. HISTORIAREN PERTZEPZIOA ANTZUOLAKO MAIRUAREN ALARDEAN: JARRAI-PENAREN ETA BERRIKUNTZAREN GILTZARRI

Antzuolako Udalak eta Antzuolako Mairuaren Alardea Elkarteak Eusko Ikaskuntzari Mairuaren Alardearen gainbehera aztertzeo eta konponbidea jartzeko proposamena egiteko eskatu ziotenean, hasiera-hasieratik garbi geratu zen orainari bezainbeste garrantzia ematen zitzaiola, agian gehiago, iraganaldiari, alegia, Alardearen gaur egungo pertzepzioa ezin zela bereizi haren iraganaldiarenetik, edo, beste modu batera esanda, oraingoaren eta iraganaldikoaren pertzepzioa elkar lotuta daudela. Baina kontua

1. Ikerlanaren diseinua eta garapenaren prozesua ezagutzeko, ikus Bullen, 2008.

2. Ikerlanaren ondorioak "Mairuaren Alardea: Antzuolako Alardearen lehena, oraina eta geroa" titulua duen txostenean jasota daude, Bullen & Kerexeta, 2007.

da, orduan, nola jokatzeko duen pertzepzioaren mekanismoak: iragana hola edo hala izan zela uste dugulako deritzogu orainari hola edo hala? Ez ote da gertatzen kontra-koa, hots, holako edo halako pertzepzioa dugula orainaz, kasu honetan Mairuaren Alardeaz, eta huraxe dela iraganera proiektatzen duguna?

Halako hipotesitik abiatuta planteatu zen Alardearen azterketa historikoa, bai eta haren berriztatzeko proposamena ere, erantzuna galdera bera baino are katramilatsua dela jakin arren. Zeren eta, iraganaz ari garela, noizko iragana, duela mila urtekoa, mairuaren kontrako borroka gertatu omen zenekoa; duela bostehun urtekoa, Antzuola Bergararik juridikoki askatu eta udalerrri oso eta beregain izatea lortu zueneko; duela mende eta erdikoa, Foruak galdu eta haiekin euskaldunok omen geneukan eskuduntza militarren desagerekin batera haien aldarria egiteko sortu omen ziren alarde folklorikoeneko; edo duela mende erdikoa, frankismoak espainiartasunaren gorazarretan zelakoan baimendu (ahalbidetu?) zuen jaialdikoarena?

Izan ere, azterketa antropologikoak argi utzi zuen, XXI. mendeko Alardearekiko iritzia zeinahi zela ere, beti agertzen zela harekiko pertzepzio historikoa, era konplexuan, agertu ere: bakoitzak ikusten zuen Alardean txalotu edo deitoratu egiten zuen alderdi historiko bat, edo gehiago, eta batzuetan alderdi bat baino gehiago, batzuk txalogarri, bestetzuk deitoragarri. Halaber, ez zen zaila antzematea pertzepzio haietan nork bere ikuspegi ideologikoaren (hitzaren zentzurik zabalenean) arabera irizten ziola Alardeari eta beraz haren iraganaldiari. Zeren eta, zientzia historikoaren haritik jatorrizko zentzua eta geroagoko bilakabidea gauza desberdinak badira ere, pertzepzio herrikoian biak bat izaten baitira.

Hau guztia Bidasoako Alardeen kasuan oso nabarmena da. Emakumeen berdintasuneko partaidetzaren arazoak areagotu besterik ez du egin pertzepzio historikoaren gaia, eta izugarri puztu historian oinarritutako (omen) argudioen nahaste-borrastea, emakumearen partaidetza ukatzeko gehienbat. Baina kontu zaharragoa da, eta oso esanguratsua da aztertzea nola Irungo eta Hondarribiko jaiei Trantsizio garaian, duela ia berrogei urte, Alarde hitza kari, espainiarren garaiaren ospakizun kontuari gehitu zitzaion foru garaian euskaldunen (historikoki, izatekotan, gipuzkoarren behar luke, baina behin eta berriro euskaltasuna aipatzen zen eta da) autogobernu militarren adierazpentzat hartzeko joera, eta nola bi joera horiek, laburbilduz eta zakar esatearren, espainolista eta euskaltzalea, elkarrekin bizi ziren, nork bereari eutsita, ekitaldi folklorizatu bakarrean. Nolatan bada? Bada, berez ekitaldiaren ez itxurari ez mamiari (herriko autoafirmazio errito den heinean) eragiten ez diolako, baizik eta bakoitzak haren gain proiektatzen duen irudimenari, eta irudimena bakoitzarena da. Emakumearen partaidetzak beste pertzepzio bat, nork bere irudimenetik haragokoa, azalerazten duenez geroz, bi pertzepzio historikoen “elkarbizitza baketsu baina kontrajarria” baztertu eta arazoaren mamia beste parametro “historiko” batzuetara eramanez, hartara, eta besteak beste, Nafarroaren konkistaz hausnarketa (edo halako zerbait) egitea gonbidatu dutela bere burua hainbat ustezko historialarik, Idoia Estornes historian doktoreak artikuluan baten izenburuan ederki laburbildurik: “desagraviando navarros eliminamos mujeres” (Noticias de Navarra eta El Mundo del País Vasco, 96/03/31). Honetarako, ikus Kerexeta (2000, 2005, 2006) y Bullen (1997, 2003).

Emaitzak oso desberdinak dira Bidasoan eta Antzuolan, abiapuntuak ere oso desberdinak direlako. Baina kasu bietan historiaren pertzepzio herrikoia berdintsu jokatu du: orain oso modan dagoen hitza darabilte pertzepzio biek: elkarreragilea da

pertzepzioa, oraina iraganean proiektatzen den bezalaxe, proiektatutako iraganak baldintzatu egiten du orainaldiaren pertzepzioa. Hitz jokoa dirudi, baina ez da, eta maiz jende gehienak historiaz tutik ez dakiela aitortuagatik, ezin ukatu batbederak baduela bere iragan partikular eta kolektiboaren pertzepzio bat, iragana, alegia, oroimena, nortasun partikular zein kolektiborako ezinbesteko osagaia da eta. Hortaz, Bidasoan bezala aplika daiteke Antzuolan ere Estornesen artikuluan Caro Baroja aipatuz datoren gogoeta:

En cuanto el historiador destruye una fábula, el folklorista o el etnógrafo tiene que recogerla y volverla a estudiar, partiendo de su criterio, parecido a veces al de aquel filósofo pragmático que sostenía que 'las cosas son importantes no tanto por lo que tienen de verdad, como por lo que tienen de mentira.

Eta Antzuolako azterketa historikoa, gezurra esan gabe, gogora ekartzen omen diren egitandiak aztertzea emana da; baina argi eta garbi utzi du hasieratik mamiari heltzeko azterketa antropologikoa dela gakoa, alegia, azterketa historikoa abiatu dela hain zuzen Caro Barojak historialaria ez baina etnografoa edo folklorista jartzen zuen tokian, zeren eta gertaera historikoak, ustezkoak izan edo dokumentatuak izan, nortasun emaile diren heinean aztertu baitira.

1.1. Alardearen esanahia Antzuolarren hitzetan

lido horri jarraituz, Alardearen esanahi soziala eta indibiduala aztertzeko asmoan, Alardeak jendeari zer esan nahi dion adieraziko dugu. Elkarrizketatu genituen gehienek tradizio bezala definitzen dute Alardea, eta tradizioen ezaugarri nagusien artean denbora aipatzen dute. Tradizioak denboran zehar sortzen dira eta herriko imajinarioan zenbat eta zaharragoa den usadioa, hainbat eta balio handiagoa. Horregatik, Antzuolako Alardeak urtetan eta urtetan iraun duelako, mantentzea merezi du. Baina ez da denboraren eragina bakarrik, baita eta pertzepzio kolektiboan iraganean gertatu zena ere: historia, alegia. Herritar baten hitzetan, Antzuolako Alardea, Euskal Herriko alarde guztiak bezala, *“ekintza historiko baten birgogorapena da”*. Halaber, beste alardeekin gertatzen den bezala, bi etapa historiko bereizi behar dira. Batetik, foruen garaiko arma errebista; bestetik, bataila baten oroimena. Lehenengo kasuan, hau da, foruei begira, herritar batzuek Euskal Herrian egiten ziren alardeak aipatzen dituzte. Izan ere, alardeak herriaren defentsaz arduratzen ziren milizia foralek urtero egiten zituzten arma-ikustatzea zen:

Da Antzuolako herriak daukan antezelan moduko bat edo herriko gauza bat alardian inguruan. Alardia badakigu ez dala Antzuolako gauza bat bakarrik, Euskal Herri osokua dala, desagertu zirala orain dala 200 eta piku urte eta hori hor gelditu dala ospakizun bat bezela indar barik.

Herritar horren esanetan, foruak indargabetu zituztenean, alardea oroipen gisa egiten jarraitu zuten: *“Esan degu lehen alardeak indar bat eta praktikotasun bat zeukan, Foruak desagertzen dira eta indar hori galdu egiten dau. Hor gelditu da hori.”* Bigarren kasuan, antzuolar guztiek Mairuaren Alardeak Valdejunquerako bataila gogorazten duenaren nozioa badute. Orokorrean, Euskal Herrian zehar, herri-oroimenean batailek arma errebistak baino garrantzi handiago hartzen dituzte. Antzuola ez da salbuespena. Mairuaren Alardea zeren oroipena zen galdetu genienean, antzuolar gehienek Valdejunquerako bataila aipatu zuten.

Batzuen iritzian, tradizioa jarraitzea nahitaezkoa da: lehenago bizi ziren jendeak sortu zuen tradizioa mantentzeko konpromisoa badu gaur egungo gizarteak:

Egia dana da, nahi edo ez nahi gu tradizioekin bizi gara... lehenago gizonekin bizi behar da. Ezin deguna da lehenago dana moztu. Orduan tradizioak horretarako dira eta tradizioak jarraitu behar dira. Aldatu behar direla edo ez? hori ya beste zentzu bat dauka, baina ezin dana da galdu.

Nahiz eta historia bera baliosutzat hartu, historiaren beste dimentsio bat ere kontuan hartu behar dugu. Hau da, jendeak nola bereganatzen duen herriaren historia (egia den edo ez), nola interpretatzen duten, nola transmititu. Elkarrizketatuek historia hobeto ezagutzeko jakin mina bazutela esan ziguten eta orokorki Alardea ulertzeko eta estimatzeko historia ezagutzea derrigorrezkoa zela ados zeunden: *“oso diferente dala ikusle bezala, ikusle hutsa izatea edota ikuskizun horren jatorria nola bait ere barneratu lehenengo eta gero ikusi ikuskizuna”*. Alardeak antzularrei aukera ematen die beraien historia ezagutzeko eta antzetzeko. Ezagutze horrek herriaren sustraiak deskubritzen ditu eta aldi berean, identifikazioaren sentimendua sortzen du: *“historia jakin gabe, ez da ulertzen, ezta sentitzen ere”*.

Parte hartzen dutenek barrutik bizitzen den sentimendua edo kanpotik ikusita sentitzen dena bereizten dituzte: *“ez da berdina ikustea edo barrutik ibiltzea hainbeste urtetan... sentimendu ezberdinak dira barrutik gaudenontzat edo kanpotik ikusten dabenezat”*. Parte hartzearen bidez sentimendua sortzen da: *“parte sentitzen zara... zure historia baten, Euskal Herriko egoera jakin baten zatitxo bat sentitzen zara, sentitzen zara horko parte zarela.”* Txikitatik bizi izan dutenek *“beti barruan eduki dudana gauza bat”* aipatzen dute. Ez da harritzeko, gure haurtzaroan gertatu ziren oroipenak helduaroan balio sentimentala hartzen dute eta. Kanpotik ikusita, berriz, *“hotza ematen duela”* aitortzen da, edo kanpotar baten hitzetan, *“neri ez dit ezer esaten.”* Alarde zaleek kanpotik ikusita aspergarria izan daitekeela ulertzen dute: *“kanpotik ikusita dabena, behin ikusten du eta beti berdina da”*. Hala ere, inkestan emaitzen arabera, elkarrizketatuen heren batek afektibitate-faktorea aukeratu zuen, *“barruan daukagun sentimendu bat”* seinalatuz. Aurreko aipu batean ikusi dugun bezala, Alardeak sortzen duen sentimenduak plano horizontal batean herritarrak lotzen ditu, bai Antzuola mailan, bai Euskal Herria mailan. Hala ere, herritarren arteko harremanak plano bertikal batean ere sortzen dira eta Alardean indartzen dira. Beste modu batez esanda, tradizio hau gizaldiz gizaldi transmititzen denez, herriaren identitatea azaltzen da: *“zerbait Antzuolakoak mantentzen dabena eta dauka bere balio mantentzea holako gauzak”*.

Hala eta guztiz ere, Alardeak ez du gauza bera irudikatzen guztiontzat. Batzuentzat, Alardea jai bat besterik ez da, edo jaietan ospatzen den zerbait, ikuskizun bat. Zentzu horretan, batzuek emanaldi hori gustura ikusten dute, baina garrantzi gehiago ez diote ematen. Beste batzuentzat, urtero egiten delako, Alardea ohitura bilakatzen da. Batzuen iritzian, bizitzan zehar hor dagoen betiko gauza bat da, eta horregatik, ez zaie ezer berezirik iruditzen. Hau da, hain ohituta dagoen jendea ezen Alardeari garrantzi handirik ez baitio ematen; batzuek diotenez, ohiturak jendea aspertzera darama. Edo, esanahi baikorra goa emateko asmotan, usadioaren poderioz Alardeak Antzuolaren bizitzan berezko nolakotasuna sortu du: *“geurea dela eta hor dagoela eta sin más”*. Usadioaren poderioz, ekitaldiek batzuetan esanahiak galtzen dituzte. Denok dakigu ohituraz egiten ditugun gauzak askotan zentzugabeak diruditela: ez da

kigu zergatik egiten ditugun, egitea da inportanteena. Mairuaren Alardean horrelaxe gertatzen da: *“parte hartzaileek ez dute intentzio txarrik, agian askok ez zuten sekula pentsatuko zergatik dauden han, ohitura da eta ohitura da”*. Baten iritzian, ohitura horretan jendeak dagoeneko interesa galdu du eta Alardea jarraitzen du udalak irau-narazten duelako, ez herritarrek nahi dutelako: *“hemen dago ohitura bat, mantentzen da udaletxe mailatik, mantentzen da, baina ez da mantentzen jendiak mantentzen dabelako”*.

Ahots kritiko batzuek aspergarria iruditzen zaiela esan ziguten. Batetik ohituta daudelako, hamaika aldiz ikuskizun hau ikusi dutelako eta urteak joan eta urteak etorri gauza bera errepikatzen delako. Bestetik, ikuskizun berak interes gutxi pizten duelako: *“gainera estetikoki ez dauka ezer. Gora jun, behera etorri, plazan bi tiro bota eta ya está”*. Kritikoen muturrean, “alarde” izenak esaten duen bezala, ospakizun hau harrokeria bat bezala interpretatzen dute: *“armekin eta gerrarekin lotzen denez, harrokeria bat da, gerra bat irabazi dugulako edo”*. Iritzi horren arabera, aspaldian lortu zen garaipen bat ospatzen jarraitzea ez da zilegi gaur egungo gizartean. Batez ere, kultura batek beste baten kontra irabazi zuelako eta garaipen hori ospatuz, beste kultura baten porrota ospatzen duelako: *“eszenifikatzeko moduan uzten ditu hor bi kultura, bata beste baten gainean. Bi figura: kapitaina zaldi gainean, mairua astoan; erlijio bat beste baten gainean, espreski gainean...”* Azkenik, eta beti ere kritikoen artean, ezin dugu ahaztu sektore txiki batek uste duela Alardea zentzurik gabeko ikuskizun aspergarri bat dela. Hori dela medio, Alardean gastatzen den dirua, xahutze hutsa da horien ustetan.

2. ANTZUOLA, MAIRUA ETA ALARDEA HITZETIK ABIATUTA

Hona egindako azterketa historiko-antropologikoaren eskema, hiru hitz ardatzetan aurkeztua: Antzuola / Mairua / Alardea. Halako planteamendua egin da hain zuzen kanpotik begiratuta harrigarri samarra egiten zelako, historia dela eta ez dela, zeinen garrantzi gutxi ematen zitzaion Antzuolari berari (haren bilakabide historikoari), eta zeinen garrantzi handia mairuaren eta enparauen figurari. Arin esateagatik, ematen zuen landu beharreko subjektua ez zela Antzuola bera, hots, urtero-urtero eta batzuen ustez mila urte luzetan belaunaldiz belaunaldi Alardea egin duen eta egiten duen pertsonen komunitatea, baizik eta objektua, hots, komunitateak bere buruari eta ingurukoei “gu gara gu” mezua bidaltzeko tenorean antzezten duen mairuareki-ko gertakariaren antzezpena bera. Eta harrigarria, lana prestatzerakoan aurkitutako antzeppenaren beraren bilakabide historikoari ez zitzaiola erreparatzen konturatzean, datu historiko baliagarri bakarrak jatorriari buruzkoak bailliran. Harrigarria... nolabait, ez baitira arraroak halako irakurketa herrikoiak, zerbait ospatzeko edo gogorarazteko motiboa eta jatorria gauza berbera direlakoak. Estornesen artikuluan “mitos fundacionales” deitzen diren horiekin lotzen da pertzepzio herrikoia. Eta mitoek, sinesgarriak eta beraz funtzionalak izango badira, horixe dute, “benetan” gertatutako zerbaitean oinarrituta behar dutela izan, eta haien ondoriozko errotoak ezin direla aitortutako autoafirmazio eginkizuntzat jo (hori historialari, etnografo, folklorista, antropologo, mitologo eta bestelako ikerleen hizkera kultua da, herritarren errealitateetik guztiz urrundu), jatorrizko gertaeraren “berezko ondoriotzat” baizik.

Eta hala izaten da, gauzak ospatu egiten dira hala egin behar delako, kuestionatu gabe... Berrito Estornesi hitza lapurtuko zaio, baina oraingoan ñabardura bat gehitze-

ko: *“Dado que la Fiesta no podía suprimirse (no hay pueblo que acepte la eliminación de una fiesta, proceda de donde proceda), había que cambiar la tradición”*. Ez dago hori onartuko duen herririk, kanpotik -edo barrutik gutxiengo batengandik- aldarazi nahi bazaio. Antzuolakoa, ostera, kasu desberdina da: herritar gehienak ezaxola, areago, hein handi batean uzkur agertzen omen ziren urtero ospatzen zen erritoarekiko. Izan ere, Udalaren babesagatik, elkarte batean bildutako aldekoen talde batek proposatua da azterketa, “akatsa” diagnostikatu eta erremedioa bilatzearen. Azterketa antropologikoak gaitza detektatzeko erritoari ez baina komunitateari berari erreparatu dio, eta gaitz handi bat ez baina egoera gaitz txiki askoren konbinaziotik eratorria dela detektatu du, edo hala planteatu du behintzat. Soluziobideak ere arlo anitzetakoak proposatu dira; baina arazo identitarioa den heinean, eta jokoan dagoena komunitate osoak ezagutu eta -alde, ezaxola edo aurka- konpartitzen duen errito batean zentratutako nortasuna denez geroz, erritoan finkatu dira proposamenak. Alegia, kasu honetan krisiaren eta aldatu beharraren (betiere dagoena ez galtzearen, indartzearen baizik) kontzientzia subjektu den herriarengandik berarengandik abiarazitako ekimena denez, hemen kontzienteki aplikatu da Quijerak Errioxako Clavijo herriaz ari dela dioena: *“sabios extraños a la fiesta explican a los oficiantes la naturaleza de sus ritos, hasta hacer variar las creencias anteriores sobre las que estos se asientan”* (1998: 404).

Halabeharrez, han ere mairuen kontrako garaipen batean oinarritzen omen den jai bat ospatzen da, baina erraz zabal daiteke antzeko kasuetara, Bidasoaldeko Alardeenera adibidez. Estornesek proposatu bezala, eta goian azterketa zientifikoaren eta pertzepzio herrikoiairen arteko aldea batzuetan ez dela hain handia ere frogatzen du, non eta “ikusmolde zientifikoak soro ongarritua” aurkitzen baldin badu pertzepzio herrikoian. Halaxe gertatu zen Clavijon, halaxe Bidasoan. Eta Antzuolan? Hori da kokxa: kasu hau berezia da, “berrikuspen historikoa” hasieratik eta modu aitortuan, ez inkontzienteki, zinismorik gabe baina “zilegitasun historikoaz” hornitzeko asmoz burutua delako prozesua. Horretan lagundu zaió Antzuolako komunitateari.

Horretarako azterketa historikoen parametro klasikoak aldatu dira. Historia zientzia den ez den eztabaidatzera sartu gabe, onartu beharra dago manipulazioa berezkoa duela, eta hala du historiagilearen begirada inguratzen zaion errealitateaz guztiz kutsatua dagoelako, eta seguruenik hola behar du. Neutroa ez baina zintzoa izan behar du, eta objektiboa, ahal den neurrian. Oraintsu arte eztabaida oso teoriko eta akademikoetara mugatzen zen historiaren egitekoa eta nolakoa. Praktikan, profesionalek egindako lanetan parametro berberak aurkitu ohi ziren, batez ere tokiko historia egitean. Maiz halako historia, profesionalen esku geratzen zenean, artxibozainek egin ohi zuten, eta agirietatik erauzitako dokumentazioa sintetizatu egiten zen, edo halako ustean, interpretaziorako tarte gutxi geratzen zelakoan. Alderak, ideologikoak izanagatik, politikoak izaten ziren: egilea kontserbadoreago edo progresistago, euskaltzaleago (gurean) edo gutxiago, “txokozaleago” edo irekixeago... baina egiteen, eta batez ere egitandien nondik norako nagusiak, funtsean, ez ziren kuestionatzen, ez eta marxista edo halakorik dei genezakeen eskema batean kokatzen ere. Gertakizunen kronikak izan ohi dira tokiko historia lanak, behintzat herritarren eskura iristen direnak. Holako historian oinarritua da pertzepzio herrikoia, “eruditua” batez ere. Jakina, halakoetan generoarena bezalako perspektibak ez dira planteatu ere egiten. Eta hein handi batean tokiko historiaz diharduten lanek ildo beretik jarraitzen dute; noiz edo noiz emakumea, euskara edo beste “berezitasun” bat gaitzat hartzen direnean ere, oro har planteamendu klasikoa kritikatu gabe gehitutako oharrak izan ohi dira.

Halako parametroa gaur egun guztiz eztabaidagarria da alde teorikoan. Alde praktikoa, gainera, Antzuolakoan behintzat, oztupo bat: nola zuritu antzuolarrak egon zirela 929. urtean emandako borroka batean, Antzuola lehen aldiz XIV mendean aipatua bada? Nola sinetsi halakorik, frogatzat gutxienez 700 urte geroago idatzitako agiria argudiatuta? Nola, bada, zuritu errege mairu baten presentzia garai hartako kronikek errege mairua gailendu zela zabalduagatik? Zer dela eta suzko armak (fusilak eta kanoiak) X. mendeko borroka baten antzezpenean batean? Huskeriak, pentsa liteke. Izan ere, Antzuola aipatu ez izana garai hartako dokumentazio eskasari lepora lekioke, areago kontuan hartuta agirietan Antzuola aipatu orduko Bergarai loturik agertzen dela eta bergarrei ez zitzaiekeela inondik inora interesatuko haien “menekoak” inolako protagonismorik har zezan historian. Adibidez, XVIII. mendeko monografia historiko (guztiz *ad probandum* idatzita, dena esatera) batek frogatu nahi zuen Irun, arlo zibil eta kriminalean Hondarribiaren menean zegoen arren, historikoki bata bestea bezain zaharra eta berdina zela, hartara Erdi Aroko “urte ilunetara” ez baina erromatarren garairaino urrundu eta Iturissa = Irun eta Hondarribia = Oiasso formula zerabilela, eta hondarribiarren aldeko historiografia ebidentzia hura estaltzen saiatu zela. Antzuolan zergatik ez litzateke hala interpretatuko? Antzuolar bezala ez ezik euskaldun bezala ere historia liburuetan nolako tokia hartua den jakinda... (¡pues los vascos no datamos! Unamunori leporatzen zioan boutade ospetsuaren haritik). Eta mairua errege ez bazen, izango zen buruzagiren bat edo. Gertatutakoa dotoretzeko lizentziak, egitandiaren funtsa ukatzen ez zuten esajeraziotxoak. Eta suzko armena, bada, Alarde hitzari lotuta, foru garaietako erakustaldi militarren aztarna bizia, garaipearen mito fundazionalarekin batera elkarbizitza ez ezik elkarren osagarria, ospatu beharrekoa ilundu edo apaldu gabe areagotu egiten zuena, Irunen, Hondarribian, Tolosan edo Elorriean bezala (halako alardeetan kanoirik ez, baina xehetasunak ez aipatzea aski omen da ontzat hartzeko). Hainbat hobe, garaipe militar bat, etsaia zeinahi dela ere, ospatzea kuestionatzen hasia zen abagunean, Antzuola herri txikiak Euskal Herriko beste herri batzuek bezala jokatu eta beraz inolako lotsari gabe ospatzeko bere festa.

Baina berriro ere Antzuola berezia da panorama horretan. Irunen eta Tolosan nafarren aurkako borrokaren garrantzia gutxiets liteke, foru garaietako milizien gorazarre egin ahala. Baina gainerako herrietan borrokaren garaipeak ez zekarren garaituaren eszenifikazioa. Irunen Lehen Mundu Gerra zela kausa, alardea oso kritikatu izan zen, eta gerra urteetan bertan behera utzia, aspaldi handitik etsai ez baina laguna zen auzo-herriari min ez egitearren. Areago, garaipe nagatik eskerrak emateko zinak zekarren meza borroka hartan hildako guztien alde egitea deliberatu zen. Tolosan, San Juan, solstizioa, bordon dantza eta abar ospatzen denez, alardearen osagai bat besterik ez da, ez jaiaren mamia, eta foru milizien bertsiora lerratzeak ez zuen inor kitzikatzen garaipea goastera nahiz deitoratzera, gehienez ere, atzentzera: besterik gabe, oharkabean geratzen zen. Antzuolan, ordea, erritoaren erdigunean kokatzen da etsaia, hemen protagonista/antagonista joko bat ematen da, non antagonista nagusitzen den ikusgarritasun aldetik. Koreografikoki bera da erakargarria, antzuolarren buruzagia baino askoz gehiago. Eta begirada guztiak mairuarengan pausatua daukenez, iritziak ere hari buruzkoak ziren, eta iritzi horiek gero eta nabariago adierazten zuten erritoaren eta errealitatearen arteko aldea, hainbesterakoa ezen antzeztutako umilazioak kanpotar asko ez ezik antzuolar asko ere bortizki kolpatzen baitzuen kontzientzian. Folklore eta errealitatea ez dira gauza bera, argudiatzen zuten beste ba-

tzuek. Horretaz asko esan liteke, baina kontua da ikusleekiko atxikimendua gero eta murriztagoa zela, partaideen partaidetza ere bai, eta Al-ard arabierazko hitzak dioen bezalaxe, errittoa erakusgai dago, publikorik ez badu eta antzezleak gero eta gutxiago badira, ez du zentzurik, eta publikoaren gogoko ez bada, zerbaitek huts egiten du.

25 urte pasa dira lehendabiziko haustura eman zenez geroztik. Orduan ere frankismotik atera berria zen errittoa eguneratu beharra zeukala garbi ikusi eta aldaketa formalak egin ziren. Halako erritualetan aldaketa formalek, haatik, beti ukitzen dute mamia: Janzkeren itxura koloretsuagoak gora-behera, kapitainak irakurtzen zuen diskurtsoa euskaratzea, noiz eta herriko euskaldun guztiak erdaldun ere zirenean, areago, erdaldun hutsak ere bazirenean, ez da halabeharrez egiten den zerbaite, badu izugarritzko esanahi politiko-soziala. Bide batez, itzulpenarekin batera tonua apaldu zitzaion, berez diskurtsoa Antzuolako armariaren osagaiak historikoki azaltzeko XVIII. mendeko testu luze korapilatsua zelako. Izan ere, hantxe dago bildua antzularren eta mairuen arteko borrokarena, erkatzeko ez daukagun XVII. mendeko testu bati erreferentzia egiten diona. Iparragirrenen bertso batzuk ere txertatu ziren ekitaldian, borrokarekin batera Hegoaldeko euskaldunon foru-batasuna gogora ekartzen zutenak: ez nolanhako xehetasuna gehiengo abertzaleko herri batean hizpide ekartzea Nafarroako Erresuma, alegia, abian hasitako autonomia erkidego berrian aldarri zen laugarren lurraldea. Antzezpena ere aldatua zen, eta mairua egitera behartua zegoen apalkeriazko keinu bat edo beste, hala nola bere durbantea lurrera bota eta zapaltzekoa, ezabatua edo arindua geratua zen.

Duela mende laurdena egindakoa festa eraberritzeko nahikoa ez eta berriro krisiaren kontzientzia. Eta beldurra: “eta aldaketak eginagatik ere nahi duguna lortzen ez badugu? Alegia, oraingo galdu bai eta besterik irabazten badugu?” Galdera irauli eta bestela galdetu zitzaion herritarrei, azterketaren bitartez: Alardea XXI. mendera iritsiko zatekeen 80ko urteetan aldaketa haiek egin ez balira? Eta azken 25 urteotan egindakoaz, edo egiteko eraz damututa al zeuden? Hobe iruditzen al zitzaion, denboraren perspektiban, durbantea zapalarazten zuen eszena, edo erdara zaharreko testu handinahi eta harroxkoa, esaterako? Aldaketen ondorioz antzularren nortasuna oke-rragotua, baztertua, gutxiagotua-edo al zegoen?

Beraz, antzularrek bere buruari, hau da, bere nortasunari modu kritikoa hel- tzeko erakutsi duten gaitasunaz baliatuz, historian proiektatutako pertzepzioa ere nortasunari eragiten dioten faktoreei begirada berriaz erreparatu die azterketa historikoak. “Bide klasikoak” antzua zirudien, haren arabera errittoa ez zuen zentzurik izango. Aitzitik, errittoa jatorri historikoan oinarritzen dela naturaltasunez onartzen duen bide faltsua ukatu eta hain zuzen bere garrantzia autoafirmazio kolektiborako errittoa izatean datzala nabarmendu da. Eta hemen mitifikatutakoa historia den be- zala herri askotan gertakizun erlijiosoa izaten dela gogorarazi zaie. Zeren eta XXI. mendeko euskal gizartean ez baita beharrezkoa demostratzea santu eta amabirjinen izenetan ospatzen diren festek sinesmen erlijiosoetan jatorria bai baina gaur egun motiborik ez dutela. Kantak dioten bezala, Donostia bakarria dela munduan, baina ze- ruan Sebastian izeneko santurik badela ez dela sinetsi behar danborradan parte har- tzeko. Areago, Antzuola euskal herrien artean bakanetakoa dela bere herriko jaietako errito nagusian ez apaiz ez prozesio ez santu ez elizkizunik batere ez duena, nahiz eta teorian mairuen eta kristauen, hots, erlijioen arteko borroka bat ospatu (halako pertzepzioa jasoa dago goian aipatu lekukotza batean). Eta hori balio positibotzat jo

daitekeela. Zeren eta, inolako ezbairik gabe, Antzuola baita subjektua, gai nagusia, garrantzikoa, eta erritua nortasuna adierazteko baliabidea, baina ez berezko helburua. Lehen ardatza Antzuola dela argi utzita, herri honen historiari egiten zaio errepa-so bat, eta mairuarena bere burua finkatzeko eta gorestekoa ahaleginen baitan ulertu behar dela adierazi, Bergaratiko askatasun erabatekoa 1629an bereganatu baitzuen. Izan ere, esana da oraingo diskurtsoa armariaren azalpenean oinarritua dagoela, eta bertan aipatzen da, besteak beste, Antzuolako bandera, gaur egun ere protagonista ekitaldian, mairuei kendutakoa dela. Halako banderak Austriarren dinastiaren garai-koa frogatzeak, bada, historikoki baliogabetu beharrean, indarra ematen dio herri txiki batek bere sinboloek hornitzeko eginahalari, bere bilakabide historikoen garrantzi handikoa izaki: bandera mitifikatzen den heinean balioesten da haren eskuratzeari eman zitzaion garrantzia. Berdin esan daiteke armariar: ikusten duen edonor (harrigarria badirudi ere, oso nabarmena baita, antzuolarren lekukotzetan ez dago holako aipamenik) berehala konturatuko da Gipuzkoako garai hartako armarran oinarritua dela: hamabi kanoiak eta errege bat tronuan eserita, ezpata, koroa, kapa eta guzti... eta lepotik urrezko katea. Errege mairuak agertzea armarrietan ez da arraroa, baina halakoetan durbantez agertzen dira, larruazala beltz, edota “mairutasunaren” beste zenbait ezaugarriak. Antzuolan, berriz, erregetzaren sinbolo guztiek hornitutako errege kristaua “mairutu” da lepoko katearekin. Hau da antzuolarren orijinaltasuna, heraldikoki paradoxikoa, baina nortasun propioa ematen diona herriari, banderak bezala, eta Bergaratik aldendutako Antzuola txiki baina bere buruaz harro hura zuzenean Gipuzkoarekin lotzen zuena. Eta mairuaren borrokak badu beste irakurketa bat, oraingo azterketa historikoak garrantzia eman diona, ordura arte oharkabean geratua bazen ere: antzuolarren konpainiak irabazi omen zien mairuei, ez gipuzkoarrek, are gutxiago bergararrek edo sikiera XVI mendera arte bergararren banderapean borrokatzera behartutako antzuolarrek, hauek beren gisa eta beren kasa baizik. Inportanteena, bada, ez da historikoki hala gertatu ote zen X. mendean, sinesgarritasunik gabeko datua izaki. Inportanteena da XVII. mendean, kokatu behar dela “denboran atzera kokatutako datua”, eta orduan sekulako garrantzia hartzen du: mairuarekiko borroka “asmatzerakoan”, antzuolarrek beren burua komunitate independente gisa goren zuten, ez beste batzuen azpitalde gisa. Eta beste herrietan bestelako adibidez dokumentatutako borroka bera, autoafirmazioaren ahalegina (1615ean Gipuzkoako herri txiki asko askatu ziren hiribilduetatik), Antzuolan bizirik dagoen tradiziozko erritoren bitartez dokumentatzen da. Halako argudioak erabili dira “gertaeren benetako egia historikoa” irauli eta komunitate txiki baten borroka identitarioa agerian uztearren.

Bigarren ardatza mairuarena izan da. Zer dela eta mairua Antzuolan. Hor, historia-rekin batera, antropologia jorratu da mairua = “bestea” dikotomia ulertarazteko. Euskal folklore eta mitologian, Pirinioetako beste herrialdeetakoetan bezalaxe, mairuaren figura arabiar musulmanarena baino gehiago basatiarena izan da, gerora idazkera kultuetan Penintsula Iberiarrean mairuek izan zuten presentziaz justifikatu dena. Mairuaren larruazal beltzarena, historikoki edo biologikoki (Penintsulako musulmanen kasuan behintzat) zentzurik ez duena, oso txertatua dago naturari lotutako eta batez ere kristautasunarengandik aldendutako pertsonaia mitologikoetan. Bestetik, mairuetan erregea hartzea gaitzat ere ez da halabeharrez: erregea ordezkari goren da, haren bitartez “bestea” zentzurik zabalenean errepresentatzen da. Urrezko katez lotutako erregea da Antzuolako armariarena: preso egoteko ere, erregetzaren ezaugarri urrea da, lehen aipatutako izaki mitologiko ez kristau beltz horiek urrea gordetzen duten

bezala. Hortaz, gaur egun arrazakeria ikus daitekeen bezala, “gu gara gu” mezuek nahitaez “bestea” behar duten huraxe izan liteke errege mairua. Edo behintzat halako interpretazioa legitimoa da, euskal folklorean mairuaren presentzia dokumentatuari erreparatuz gero (uste baino askoz ugariagoa izaki), behintzat Espainiak XIX.-XX.etan Marokoko gerrengatik erakarritako mairuaren topikoak (“bestea” baino, oso bigarren mailako pertsonaiatzat jo) ezabatu arte. Ezin frogatu hura izan ote zen antzuolarren garai bateko mairuarekiko pertzepzioa, baina erroak eta beraz “zilegitasun etnografiko osoak” izan ditzakeen aukera bat da etorkizuneko aldaketeki begira.

Eta Alardea da hirugarren ardatza. Oraingo jaiari armadunen presentziak jatorria garai hartako alardeetan ote duen eztabaida daiteke, edo derrigorrezko desfile haien eta oraingo ekitaldi folklorikoen alde handiaren zergatiak galde liteke, beste herrieta-koetan egiten den bezala, uniformeak direla, kanoiak direla, soinularien gehiegizko presentzia dela... Baina beste herrietan ez bezala, Antzuolak bai froga dezake foru garaietako derrigorrezko desfile militar haiek, bandera eta guzti, erabiltzen zituela Ber-gararen inposizio nahiari buru egitearren. Alegia, XVI. mendean (eta honetan Irunekin bat dator, baina ez Tolosa edo Hondarribikoarekin), Antzuolan, erabateko askatasuna baino lehen ere, alardeek funtzio militarra ez ezik funtzio identitarioa betetzen zuten. Lehen aipatutako antzuolarren konpainiak, borrokan garaile irtendakoak, lotura estua izango zukeen halako alardeekin.

2.1. Herriaren historiaren irakurketa

Orokorki, jendeak aitortu zigun ez duela oso ondo ezagutzen Alardearen historia edo detaile gutxi ezagutzen dituela. Hutsune hori konpontzeko asmoz, Mairuaren Elkar-teak eta Iñigo Ramirez de Okariz bazkide, historiagile eta kultura zinegotzi ohiak hainbat ekimen egin dute Alardearen inguruan azken urteotan. Horien helburua? Herritarrek jakin dezaten gutxi gora behera Antzuolan zer ospatzen den eta jai horren jatorria zein den. Labur esanda, Alardearen historia ezagutarazi:

Antzuolan jai hau da nahiko ezezaguna alderdi historikotik begiratuta. Hori konprobau izan dugu sarritan. Eta gu saiatu gara hori konpontzen. Eta hortarako kaleratu izan ditugu proiektuak, kaleratu izan ditugu liburuak... defizit hori konpondu deian; bai jendiak jakin dezan gutxi gora-behera Antzuolan zer ospatzen dan, jai horren jatorria zein dan.

Hala eta guztiz ere, konturatu dira jendearengana ez direla iritsi. Makina bat publi-kazio kaleratu arren, makina bat foileto buzoietan sartu arren konturatu dira jendeak ez duela irakurtzen – ez zaiolako interesatzen- edo irakurtzen duena ahaztu duela. Hori da, behintzat, aitortu zigutena herritar askok. Noizbait hitzaldiren bat entzun dutela diote batzuek, baina testuingurua eta xehetasun gehienak ahaztu dituzte: “Nik uste dut ez dagola garbi geratzen noren alde eta kontestua zein zen ez da garbi gera-tzen. Bakarrik ba arrotz batzun kontra deituak izan ginela eta joan ginela hori egitera.” Mairuaren Elkarteko kideek frustrazio handia sentitzen dute historia ezagutarazteko esfortzua egin ondoren herritarrek oraindik hain gutxi jakiteaz:

Frustrazio punta badaukola ezautze maila hori edo ezautu nahi izan dan bakoitzian ez dabela, ez dala bajatzen maila guztietan. Ni neu ahalegindu naiz pixkat ezagutzen his-toria honi buruz... baina ikusten dotena da, herri mailan ez dagola hori... Eta orduan, nik pentsatzen dut alardiak herrian sekula ez dabela hartuko garrantziak, baldin eta ez

badogu lortzen atzetik datozenak ezagutzia historia hori. Orduan, neretako lehenengo puntua da, jatorria. Bai, historia badago, nahasi bat, gauza desberdinak dare.

Egia da, Iñigo Ramirezen hitzetan, “Antzuolan ospatzen dan alardian nahasten da mitua eta historia”. Alde historikoa milizia foralen historia da; mitoa, berriz, Valdejunqueraren bataila eta Mairuaren papera da. Historian zehar, antzularrek bi elementu horiek uztartu egin dituzte, ekitaldi folklorikoa sortuz: “Gauza bi horrekin, sortzen da folklorea. Eta folklorea da Euskal Herrian oso inportantia... eta Antzuolan, folklore ikuspuntutikan ohitura oso-oso inportanteak dauzka.” Alardea ekitaldi folklorikoa izan arren, historiaren “egiak” herritar batzuk kezkatzen ditu. Nahasmen horrek herriko irudimenean Alardearen historia elezahar bihurtzen du: mitoaren ezaugarriak hartzen ditu eta antzularrek ez dakite zenbateraino den erreala eta zenbateraino legenda. Batzuk inolako oinarririk ez duelakoan daude: “Historia hori gezurra galanta da...Fantocheda bat da! Historia hori, legenda hori ez da inoiz gertatu...Moroena dena gezurra dela.” Beste batzuek, aldiz, historia bere egia izango zuela pentsatzen dute, baina egia izan baino gehiago, historia asmatu egin da: “Beti izan da guda baten historia bat, ez dakigula zenbateraino reala dan, baina azkenean guda baten agerpen bat... Zerbait dago, baina errealtate ez da.” Beste batzuek ohitura bat baino ez dela uste dute eta nahiz eta tradizioa jarraitu, historiak berak ez ditu gehiegi kezkatzen: “Nik uste dut tradizio bat dela gehienbat...Nahiz eta urtero entzun, ni idea...Jendearen ohitura da, donde va Vicente, donde va la gente, con la corriente.”

Gehienak gauza batean ados daude: Nafarroako erregeak antzularrei laguntza eskatu zien bere herritik musulmanak botatzeko eta “antzularrei esker gerra irabazi zen”. Guda irabazi ondoren, bandera herrira ekarri zuten. Baten batek Castilla-Leongo erregea izendatzen du, baina bere papera ez da oso argi geratzen.

Hor esaten da Naparroko erregeak laguntasuna eskatu ziola Castilla-Leongo erregeari, eta beretzako horrek ez dula zentzurik diskurtsoan esatea. Beste diskurtsoa, Antzuolak Naparrakin hartu emana eta hor bukatu behar dula, ez Castilla-Leongo errege eta zeak.

Mairuaren Elkartekideek historiaren detaile gehiago badakite eta horrela kontatu ziguten. Hasieran, alardea egitera Antzuolakoek Bergarara joan behar zuten, 1629an independentzia eskatu zuten arte:

Jendiak alardia egitera, alardia bera bizirik zeguanian eta derrigortutako gauza bat zanian urtian behin armak aurkeztera juatia, Antzuolako jendia Bergarara juten zan. Eta bueno, Antzuolako jendiak Bergarara joaterik ez zuan nahi. Eta orduan, eskatzen dau independentzia hori.

Garai hartan “Espainiako koroia xahututa dago Flandesko erregeagatik”, eta dirua lortzeko “hiri-tituluak” saltzen ditu. Orduan Antzuolak bere herri izaera erosi zuen eta herria goratzeko, iraganeko gertaera nabargarria bilatu zuen. Benetan existitu zen Valdejunquerako bataila aukeratu zuten eta antzuolarrak han parte hartu izan bazuten bezala jarri zuten. Sasoi hartan, gauza guztien errua mairuena zen. Gainera, erlijioak zeukan indar handia. Horregatik, “Mairua despektiboki azaltzia izan leike horren ondorioa ere bai, ezjakintasun baten.” Alardean Mairua tratatzen den moduak beste interpretazioa badu, beste baten esanetan: “Garai batean mairuek mundua dominatzen zuten, gaur Bushek dominatzen duen bezalaxe. Beraz, bataila batean indartsuena gainditzen baduzu, biktoria hori irabazlearen indarra erakusten du”.

Horrek esan nahi dau Antzuolan, garai batean ustez antzuolatarrak egindako ekitaldi bat edo borrokaldi bat ospatu nahi dala. Eta borrokaldi edo gertakizun hori dala Baldejunkerako borrokaldia. Eta Baldejunkerako borrokaldia non azaltzen da? badago hemen nolabaiteko agiririk, kasu honetan Antzuolako armariaren ziurtagiria edo zertifikatua, azaltzen da forua, azaltzen da Baldejunkerako borrokaldia, azaltzen da pixkat kontestu guztia.

Beste batzuek, berriz, ez dute uste horrela zela: “diskurtsoa esaten duen bezala hemengo konpainia joan zela, hola behintzat ez dut uste”. Begi-bistan dago nahas-keta orokorra dela eta “zehaztasun historikoa” falta dela: “Antzuola Nafarrura pertentzen zen, ez zen pertentzen, ze kontexto politikoa zegoen, ez zegoen, moruak zer ziren, ze suposatzen zen.” Gehienek “gudaren datua islatuta besterik ez dakite” eta Alardearen bi ardatz nagusi ez dituzte bereizten: alde batetik, duela mila urteko guda eta bestetik, 18. eta 19. hamarkadetan foru-miliziak: “Hemen garbi dagona da, nahasten dira bi histori... Historia horrek danak jakin ondoren, gezurra dan, egia dan, zer dan... baino bueno, armen alarde bat dala garbi dago.” Sentidu horretan, Alardea, foru-miliziako armen erreibistaren gisa, bai erreala dela dio batek; gerraren eszenifikazioa, alderantziz, elaborazio hutsa dela: “Arma alardearen ondorio bat pixkat eszenifikatzen, eta honen ondorioa irten da historia hau.”

Alardia zer dan nik uste dut jende gehienak badakiela, baina badauka bere oinarri historikoa, oinarri foral bat, zerikusi daukana Euskal Herriko antolamendu militarrekin, eta bueno, danok, gehienok jakin badakigu behin foruak galduta galdu zala kasu honetan antolamendu militar berezi hori eta horrek ekarri zuen hutsunea.

Batzuen ustetan, foru-miliziako erreibistaren oroipena bai kontserbatu behar da, baina gudarena legenda besterik ez denez, ez da mantendu behar:

Nolabait bi parte ezberdinak dauzkala: bat alardea egiten zan garaikua eta kontserbatzen dana, eta hori historikoki frogauta dagoena eta pentsatzen jatena interesantia kontserbatzia. Eta gero bestia dala, ez dakigun nondikan sortu zan, noiztikan be, nolabait antzerki bezela egiten dala hori, moruan agerraldi hori.

Azkenik, historiaren enfasia aldatu zenetik, hau da garai batean “Moruaren gerrira” deitzen ziotena gezurtzat jo zuenetik eta milizia foralen oroimena azpimarratzen hasi zenetik, antzuolar batzuk engainatuta sentitu zirela kontatu ziguten. Harro sentitzeko moduko ekitaldi bat bat-batean gezurra zela entzutea etsipen handia izan zen berarentzat:

Gauzia da, lehen pentsatzen genuen hori hola izan zala, Valdejunquera eta zera, harrotasun bat... nik pentsetan dut, nere sentimentua, la leche! Eta gero, beste notizia etorri zanian, una decepción... haundia. Bueno, haundia, ba nik bizi izan dut como... me han engañado.

2.2. Historiaren garrantzia antzuolarren hitzetan

Mairuaren elkarte kideen hitzetan, ezagutzea, ulertzea eta baloratzea bat datoz: “Hor dago teorema bat: ezagutzen ez dana, ez da ulertzen eta ulertzen ez dana, ez da baloratzen. Ezagutzak dakar ulermena, eta ulermenak dauka balorazioa.” Beste batzuentzat, historia egia den edo ez garrantzi gutxiko datua da. Denbora galtzea da, gainera. Batek Biblia jarri zigun adibide bat bezala. Umetan ikasi genuen Biblia egia zela; gero batzuek sinesteari utzi zioten eta beste batzuek oraindik sinesten dute. Kontua ez

da Bibliak egia esaten duen edo ez, baizik eta nola eramaten dugun esaten duena ekitaldi folklorikoetara (erroneria batera, prozesio batera edo desfile batera).

Hori azkenian da umeetan ikasi genuan moduan, la Biblia... oraindik badago jendia Biblia sinistu egiten dabela, eta esaten dabe holaxe dala. Eta azkenian hemen egongo da jendia esaten dauena holaxe dela. Eta hori burutik kentzia batzuri zaila izango da.

Antzuolaren historiaren zehar, istorio asko badaudela eta batzuen ustez, ez dago zertan hainbeste garrantzi eman ekimen bati: "Ez zan horrela bakarrik gertatuko, beste zeozekin alardeatu edo gertatuko zen, baina ez da egiten teatro bat. Ez da hori bakarrik erakutsi behar." Hala ere, usadioa orain arte eta arazo guztien gainetik mantendu egin delako, mantentzen jarraitu egin behar dela dio batek: "Antzuola herri txikiagoa izanda eta arazo gehiago egonda holako gauzak mantentzeko, ba mantendu dan gauza bat dela." Alarde zale baten hitzetan, gaurko erronka halaxe da: memoria kolektiboa nola zaindu, nola mantendu interesa, behin baino gertatu ez den zerbaitean, hainbeste urte pasa ondoren? Tradizioa mantentzearen alde egon arren, historiak ez dituela aldaketak debekatzen pentsatzen dute askok.

Historia hobeto ezagutuz gero, Alardea gehiago baloratuko zuen galdera egin genuenean, erantzun ezberdinak jaso genituen. Batzuen iritzian, Alardea ez da inportantea gertatu zelako, baizik eta bizirik irauten delako: "Jatorria ez da inportantea; inportantea da hor dagoela..." "Base historikoarena ez zait neri gehiegi ardua." Alardea ikusten duten batzuei ikustea gustatzen zaie eta ikuskizunaz gozatzeko historia ez dute jakin behar: "Ikusten duzu el escaparate eta barruan zer dagoen ez duzu nahi gehiegi sartzea." Parte hartzen duen batek, alderantziz, gehiago jakin nahi du, historia hobeto ulertzeko eta egiten duenari sentidu gehiago emateko:

Gerrak bi alde dauzka eta ez dakizu momento horretan zeatik... musulmanak edo igual, alde hori be ez dakigu, eta zati hori dakigu eta dakiguna be kontaktzen da batzutan historia, ahoz aho kontaktutako historia dan edo... Geratzen zera duda horrekin, ez dakizula benetako... nahi dozu bestea jakitea, baino nora jo behar duzu.

Hala ere, parte-hartzaile horrek argi du historia bakarra ez dagoela eta kontaktzen duenaren arabera historia aldatzen da. Horregatik, garrantzitsua da bertsiio bat baino gehiago ezagutzea:

Egia esanda, historian badaukat zera bat, baina ez dakit. Ze historiari begira, edo irakurri duzuna, segun zeinek kontaktzen daben, oso diferentia da. Eta segun eta ze ikuspegi daukan idazten daben horrek. Oso tradizionala baldin bada, ze kontau behar dau? ba horixe.

Gainera, foru-miliziako errebistaren oroipena eta batailaren legenda bereiztea inportantea dela zenbaten iritziz, antzetzten diren bi historia banatzea eta argitzea. Herritar honek kuriositatea erakusten du Alardearen hasierak ezagutzeko, orain arte adineko pertsonen iritzia zalantzarik gabe onartu baitu:

Nik uste dut oraindik igual nahaste bat badagola jende artian. Gauzak garbi ez daudela. Nik uste dot zer dagoen historikoki garbi azaldu, eta gero zer dagon ohitura bezela edo noiztikan hasi zan. Esaten dau, porque claro, azkenian pertsona nagusiak eta "es que beti egin da hola eta...". Baina zeatikan, beti egin da baino noiztikan da hori. Eta bueno, zeatika hasi zan egiten.

Adibidez, azaldu zizkigun zalantzen artean zergatik agertzen den Valdejunquerako bataila hemeretzigarren ospakizun batean. Badirudi jende asko alardeak berak mila urte baino gehiago dituelakoan dagoela.

Pixkat hori pentsatzen jat aztertu beharko ziala eta bueno, gaur egun, orduan hasi zanian, pentsatzen neban mila urtetikan. Baina ez da hasi mila urtetikan, ezta gutxiago bez, hori izango da 1800, 1700 eta piku inguruan urrien jota. Eta bueno, zeatikan eta horrek aztertu, eta gero bereiztu horrek.

Mairuaren Alardearen historia hobeto ulertuz gero, antzuolarrek Alardean aldaketak egiteko zentzuzko erabakia har zezaketela ziur zeuden.

2.3. Historiaren antzezpena Alardean

Ikusi dugun bezala, Alardean historia eta fikzioa nahastuta daude. Halaber, zalantza dago ea Alardea antzezlan hutsa den eta antzezten denaren artean egiazko zerbait dagoen ala ez: “Bueno, antzezlana bakarrik ez. Normalean antzezlan bat da, antzezlan bat. Baina hemen... Baina historia hori hola dan edo ez dan, hor bere duda dakae”. Zenbat buru, hainbat aburu. Interpretazio ugari ditugu. Urtetan zehar, Alardea garai bakoitzeko ikurtzat hartu dute: “Orain arteko imajena momentu bakoitzean zerbitu den bere zearako. Frankismoaren garaian ikur danak ziren Espaniakoak; orain badira ikurriña eta bestea...” Batzuen iritzian, mairuen kontrako guda irudikatu beharrean, Espainiaren aurkako borroka irudikatu beharko litzateke. Nolanahi ere, horrelako interpretazioa abertzaleentzat problematikoa izan daiteke:

Batzutan ez dot ulertzen, ze bataila hori da rekonkistan barrukoa. Eta nik batzutan esaten dut: jo, hain abertzaleak, hain abertzaleak gea, eta gare ospatzen Espainia eraikitzea. Nik hori be pentsatzen dot, bueno, hemen ze eskizofrenia dago? anti-espainolak gehiengoak, edo asko, edo batzuk... eta gare ospatzen Espainia egituratzea, Espainia kontzeptu moduan jaiotzea. Hori gare ospatzen. Eta orain, baten bati esan izan diot: zu ez zinan abertzale?

Abertzale batzuen ustetan, Mairuen aurkako borroka edo Espainiaren aldeko borroka irudikatu beharrean, Alardea Euskal Herria babesteko ekintza bezala aurkeztu beharko luke. Honek esan nahi du Alardearen esanahia zabaldu beharko lukeela: baliteke Euskal Herriaren defentsa edozein etsairen kontra irudikatzea.

Nik pentsatzen dut euskaldunak borrokatu ginula, ez bakarrik mairuakin, borrokatu ginula espainiak. Hori sekula ez da esaten, beti esaten da irabazi genuela mairuei. Baina es que uste dut borroka izan dala urte askotan, askorekin. Eta orduan hori da: gu euskaldunak ga, Euskal Herrian gare, eta Euskal Herria defendatuko dugu. Baina es que mairuena da anekdota bat, edo Antzuolako herri honek egin zaben bere garaian gauza garrantzitsu bat, baina ez Antzuola defendatzera, jun zian Euskal Herria defendatzera.

Interpretazio horri jarraituz, Valdejunquerako bataila antzeztean, herri hura – Nafarroan izanik – Euskal Herriaren zati bat zen eta horregatik antzuolarren desplazamendua merezi zuen:

Ez ziren jun Naparrura Antzuola defendatzera, Valdejunquerara. Gu ez ginen hemendik, hortik tiruak botatzen, Valdejunqueran. Hori ez da Antzuola defendatu, hori da Euskal Herria defendatu. Eta tokau zan antzuolatarrak izatia, handik botatzia, eta hori ospatzia. Baina pentsatzen dut euskaldunak, nola ez dan ezagutzen noiz arte, noizkuak

garen, baina zuk pentsau zenbat burrukatuko gendun gure naziotasuna, hezkuntza mantentzeko, ze aintzinakoa da. Geroz eta gehiago dakigu oso aintzinakua dala. Orduan, hor egongo ziren mila burruka eta mila burruka Antzuolakuak, Bergarakuak... danak juntatuta. Nik hortik egingo nuke, Euskal Herria defendatzeko.

3. ALARDEAREN BERRIZTAPENA

Beraz, halako herri txiki batek gaur egun bere nortasuna mantentzeko ahaleginak eta bi egin behar dituzenean (azterketa antropologikoa azaleratutakoaren arabera, herria baino gehiago da, edo izateko arriskua du, lo egiteko auzo bergararra, 12 urtetik aurrera umeak hara bidaltzen baititu ikastera, lanera, asteburuetan ere husten baita...), gutxienez mende luze baten borrokaren ondoren XVIII. mendean askatasuna lortu zuen herri hura gogora ekartzea, bere alarde, bandera, armari, mairu (beste herrietan galdu den izaki mitiko-folkloriko baten aztarna ote?) eta guzti, nortasuna emateko errietoari esker, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, are gutxiago hura guztia gogoeta prozesu luze baten ondorioz emana bada, non zientzia sozialetako profesionalak eta mintegi batera deitutako alardedun beste herrietako ordezkariak ekarpenak egin dituzten.

Prozesu luzea izan da, guztira hiru urte eraman dituena, komunitateko kide asko (eta horietako asko, prozesuaren hasieran ezaxola, uzkur edo oso kritikoa agertuta) bildu dituena eta aldaketak adostasun maila handiaz gauzatu, azterketa historiko-antropologikoa konklusio modura egindako proposamenetatik abiatuagatik ere bere ekimenez garatu eta bideratua.

Horrela laburbil liteke egindako berriztapena, azterketan berriaz proposatu gabe ere herritarren interpretazioz sortua: “gu gara gu” eta “bestea” baldin bada elkar erkatuz komunitatearen zentzua indartzen duena, eta helburua gu geu garenez, eta ez “bestea”, mantentzeko dezagun geurea funtsean berdina, eta alda dezagun “bestea”, alegia, jarrai dezagun gu geu izaten, baina alda dezagun bestearekiko pertzepzioa. Edo, hobeto esanda, egoki dezagun errietoan besteaz dagoeneko daukagun pertzepzioa. Eta hala egin da, hitz bitan adieraztearen, lehen antagonista gehiago zen mairu errege baino, eta orain gehiago da errege mairu baino: zaldi gainean doa, ez asto gainean; janzkera mairuarena da, baina dotorea (2008 arte lehengo errege mairuak zeraman txilaba eta kapelu mota orain erregeren zaldia gidatzen duen laguntzailearen janzkera da); kolorea iluna da, baina gehiago dirudi brontzeatzeko makillajea (gaur egungo gizartean onetsitako kolorea, hondartza edo eskiatzeko oporrei lotua) ezen ez dena zikintzen duen kedar beltza (lehen, bilatu gabeko ondorioa, baina ekitaldiaren bukaran itxura narrasa ematen ziona); dotore jantzitako lau laguneko eskolta darama; ez da makurtzen ez belaukatzen, eta parez pare hitz egiten dio antzuolarren buruari, euskaraz eta arabieraz; zuka egiten zaio (nahiz eta lehengo hikaren aztarnen bat geratzen den)... Hots, “bestea” izaten jarraitzen du, baina parekatua dago, ez azpiratua.

Antzuolarrek (beste jai askotan ez bezala, mairua mairu da, baina “gureak” ez dira kristauak, antzuolarrak baizik), ordea, lehengo lepotik segitzen dute burua, bai janzkeran (duela 25 urte txertatutako xehetasun bat edo beste izan ezik), bai ko-reografian. Jende gehiagok parte hartzen du, eskopetekin edo danborrekin; herriari egindako itzulia luzexeagoa da; kapitainak diskurtsoa irakurtzen du... Diskurtsoak bai jasan duela aldaketarik: tonua ez da hain militarra, goxoagoa baizik; jarraitzen du gu / zuek dikotomian, baina ez du kanporatzen, eta bai etortzera gonbidatzen non eta

indarrez edo inposizioz egiten ez bada (gaur egungo etorkinen testuinguruan kutsu aurrerakoia duela esan daiteke); “mutilak” hitza, lehenago zortzi aldiz agertzen zena “herritarrak” hitzak ordeztu du; foru garaietako alardeei, hots, euskal autogobernua-ri, garrantzi gehiago ematen dio, eta antzuolarrek Baldejunckeran (borroka aipatzeko XVII. mendean dokumentatutako euskal toponimo Junkadia edo Junkariari uko egin zaio, askoz ezagunagoa den erdarazkoaren alde) izan ote ziren egiaztatu edo gezurtatu gabe, herri tradizioak egitandi hartan parte hartu izana jasoa eta belaualdiz belaualdiz pasarazia duela dio. Tradizio hori gugana iritsia dela ukazina denez, lis- kar historiografikoen edo ebidentzia dokumentalen sasipean arantzaz urratua geratu gabe katea ez eteteko formula inteligente bat bilatu da: herri-tradizioa berezko balio bilakatu da, kultura ondare, Arantzazuko Ama XV. mendean artzain bati agertu zi- tzaiola esatea bezain balioetsua den tradizioa. Mairuaren figura, halaber, pertsonaia historikoa mitifikatzeak ere balioa gehitzen dio erritoari: ama euskalduna zuen Abd-ar- Rahman III.ak, Kordobako kalifa boteretsuenak, sinpatia sorrarazten du, herri txikiak errege handienari irabazi, herrira ekarri, epaitu eta adiskidetzea antzetzten baita. Nork sinetsi behar du Amabirjina bene-benetan agertu zela elorri baten gainean Arantza- zura joateko? Amabirjina hura apika Mari paganoaren bertsio kristaua dela dioen azterketa kultuak gaur egun balioa kendu beharrean seguruenik gehitzen dion bezala, antzuolarrek ere, “egia historikoaren” segadan erori gabe, azterketa antropologiko -historikoa gainbehera sumatzen zuten erritoari duintasuna emateko eta beraz herri -nortasuna indartzeko erabili dute.

4. BIBLIOGRAFIA

- BULLEN, Margaret. “Las mujeres y los Alardes de Hondarribia e Irun”. In: *Arenal*, 4.1. bolumena. Granada: Editorial Universidad de Granada, 1997; 123-145 or.
- . “Cuando la administración apuesta por el cambio: complejidades y paradojas en el contexto vasco”. In JABARDO, Mercedes MONREAL, Pilar, PALENZUELA Pablo (Koords.) *Antropología de orientación pública. Visibilización y compromiso de la antropología*, Donostia-San Sebastián: ANKULEGI antropología elkarte, 2008; 227-245 or.
- ; EGIDO, José Antonio. *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irun y Hondarribia*. 1. arg. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2003; 268 or.
- ; KEREXETA, Xabier. “Mairuaren Alardea: Antzuolako Alardearen lehena, oraina eta geroa”, (argitaratu gabeko txostena), Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 2007; 209 or.
- ESTORNES, Idoia. “Desagraviando navarros eliminamos mujeres”. In: *Noticias de Navarra eta El Mundo del País Vasco*, 1996/03/31.
- KEREXETA, Xabier. “Historia, tradizioaren menpe: Bidasoako Alardeen adibidea”. In: MORENO, Gorka & KEREXETA ERRO, Xabier (koord.) *Bidasoako Alardea: Herria versus Hiria*, 1. arg. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2005; 19-42 or.
- . “La Historia, a merced de la tradición: el caso de los Alardes del Bidasoa”. In: MORENO, Gorka & KEREXETA ERRO, Xabier (koord.) *Los Alardes del Bidasoa: Pueblo versus Ciudadanía*. Ereta bilduma, 1, Irun, 2006; 49-78 or.
- . “Dime de qué alardeas”
<http://www.alarde.org/a6/dimededeque/alardeas.htm>, 2000.
- QUIJERA, José Antonio. “Pautas culturales y dinámica social en el Alto Ebro: la danza tradicional en La Rioja”. In: FERNÁNDEZ DE LARRINOVA, Kepa (ed.) *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social*. 1. arg. Iruñea: Pamiela, 1998; 325-448 or.